


Goibek kale

Elgetako aldizkaria ekaina 69zk.

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

Kaskajo, Zorionak!



Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxe: 94 6583061.

Hemeroteka: zati hau Grupo Loiolako aldizkaritik atera dugu. Egilea Itsaso Oianguren da. Argitaratu zen hizkuntzan dago, espainolez.

Por Fin Carmelita!

... En la familia no había más que llantos, gritos, juicios, críticas contra el grupo, contra todos, contra Dios...

Aquello parecía una casa de locos. Me empezaron a controlar todo lo que hacía, a leer las cartas que me llegaban, a registrar toda la habitación: para decirlo más corto, no podía dar un paso sin que mi madre lo supiera. ...

Itsaso Egizabal

Gutun irekia

Paperezko orri zuri baten aurrean jarri naiz, eta idazle batek sentitzen omen duena sentitu dut, hainbeste esateko! eta nola antolatu...? =

Lehenengo eta

behin, eskerrak eman gura dizkiot aldizkari honi, nire inguruko jendearen, nire sustraien, nire betiko ingurunearen aurrean gauzak argitzeko aukera eman didalako. Oso zaila litzateke pertsona guztiei nire sentimenduak banaka azaltzea, eta horretan dago gutun ireki honek.

Gaur, pixka bat bakarrago geratu naizen egunean, nire bakardade sentimenduak noiz eta nola hasi ziren azaldu dezaket. Ziur nago, euren baitan euren burua amatzat daukatenek ulertuko nautela.

Nire bizitzaren zati handia ama izateak markatu

du, guztiz ase nauen lan zail eta atsegingarria. Nire seme-alabak hazten ikusita, gure gurasoek gu hazteko zenbat borrokatu ziren ulertu dut: badaude bizitzan, irakasten ez diren gauzak, eginaren eginez bakarrik ikasten direnak, eta nik, ama izatearen lan magiko horri heldu nion, alaba izandakoaren esperientzia hutsarekin. Nire hiru seme-alabak jaio ziren, eta eurak hazteari eta munduarekin harremanetan jartzeari ekin nion, bizitzaren nire esperientzia onak eurai helaraziz, nirekin beste batzuek lehenago egin zuten bezala, amen lanetako bat hori delakoan bainago... Eta ikaragarri gozatu nuen...!

Itzelezkoa da, hazten dituzun seme-alaben bitartez nola ikasten duzun amaren eginbearra, zeure barnetik seme-alabak edukitzean eta eurak, munduan egon daitezen, askatzen joatean datzala. Eta seme-alabak zurekin geratu daitezten bakarrik bazara ama, ez zara ama ona...

Horrela esanda, lan bihozgabera ematen du: maitatu dituzu, zaindu dituzu, hazi dituzu, hain zuzen ere zugandik alde egin ahal izan dezaten. Baina horretan ez dago bihozgabera den ezer, aitzitik, hori da ama izatearen gauzarik zoragarriena: seme-alabak hazi, norekin egon nahi duten modu askean aukeratu dezaten.

Aipatu beharra daukat, ibilbide horretan, gure gurasoek erlijioa irakatsi zidatela balore modura. Giro

katolikoan bizi izan nintzen, eta ondorioz, Jainkoarengana jotzen nuen poztasunengatik eskerrak emateko, ezbeharraren aurrean erregutzeko, eta gure bakardadean lagun gintzan.

Nirea bilakatu nuen gure gurasoen Jainko horrek, ama bezala egin beharrekoetan ere lagundu ninduen, eta oso hurbil izan nuen. Ez zitzaidan zaila izan hurbil izatea, seme-alabak haztearen gozamenean lagun modura...

Nerabezaroa heldu zen... gazteek haurtzaroa uzten dutenean jasaten duten banaketa hori, amek nolabaiteko beldurrez espero dugun aro hori, seme-alabak bidetik okertu, drogak hartzen hasi edota alferrik galduko zaizkigula pentsatuz... eta nire seme-alabak nigandik banandu ziren, guztiak banantzen diren bezala, hau da, geroago berriz itzultzeko. Baina nirek ezin izan zuten askatasunez aukeratu...

Nire seme-alaben atzean, bere eskaeretan fanatikoa den talde erlijiosoa zegoen, bekataria kritikatzan duen Jainko kupidagabe eta justiziazalearen jarraitzaileak... Eta orduan, nire baitan, oraindik bizirik dagoen baloreen arteko kontrajarpna agertu zen, nire familiarekin berriz egoteak bakarrik lasaitzen duen kontrajarpna. Ez zidaten ba esan, Jainkoak bekataria maitatu, bilatu eta beragana biltzen dituela...? Ez zidaten ba esan, gizon-emakume askeak hazi behar genituela...? Nola liteke nire seme-alabek askatasunez

aukeratu ez izana eta, eurek "bekatari" deitzen zituztenak Jainko berberaren izenean bazterteza...?

Nire barnean zerbait hautsi zen. Ulertzen ez nituen gauzak zeuden...

Aurrean neukana ez zen nerabeen banaketa hutsa, aurrean neukana, nire seme-alaben askatasuna mugatu eta talde erlijioso moduan euren nahia bereganatu zuten ama gaiztoa zen. Gainera, bera ona izatearen itxurak eginez, ni gaiztoa eta txarto bideratutakoa banintz bezala eta ezer ulertuko ez banu bezala.

Ez nion Jainkoari inoiz hutsik egin, ez nuen bera ukatu, ezta iraindu ere, "nire hurbileko norbaitek" Loiola taldearen aldizkarian idatzi duen bezala. Nire etxean, Jainkoa, haztean ondoan izan dudana balorea da. Nire aurrekoek emandako baloreen arabera bizitzeko, ez dut behar Jainkoaren izenean gazteei askatasuna kentzen dien talderik; eta horrexegatik, Bera hurbilekoa dudalako, Jainkoarekin biziki haserretu nintzela esan dezaket, eta ez nuela ulertu zergatik banatu zituzten nire alabak nigandik ustezko jainko baten izenean.

Gaur egun guztiok dakizue nire bihotzaren heren bi klausurazko komentu batean daudela. Sufritu egiten dut eta poztu egiten naiz ikusten ditudan bakoitzean, eurak besarkatzeko irrikitan egoten naiz, eta, hauteskunde orokorrak daudenean (hauteskunde autono-

ESTAMPACIONES INTXORTA S.A.



AENOR



Empresa Registrada

ER-07142/96

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabiloi z.k.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxes: 94 6231928

Suaren gaineretik saltoka

Urtero moduan, ohitura jarraituz, ekainaren 23an San Juan sua egin zen. Aurten ere, azken urteotan egin izan den bezela, kartoi eta paper pila polikiroldegiko kantxaren ondoan batu zuten herriko umeek aste gutzian zehar. Azkenerako pila nahiko haundia egin zuten eta sua haundiegia zenez gaineretik salto egiteko, ondoan beste su txikiago bat egin eta bertan ibili ziren suaren gaineretik saltoka. Hurrengo goizean erreuts pila besterik ez zen gelditzen. Sugeak eta zapuak erreta!



Euri apurren bat egin zuen arren ez zen sua egiteko arazorik egon.

Kirola egiteko aukera zabala

Urtero bezala, aurten ere, Uda kanpaina antolatu du udalak. Aurten, ordea, haur, gazte eta helduak kirola egiteko aukera eskaintza zabala izango dute. Uztailaren 2tik 24ra bitartean izango dira kirol jarduerak. 3 eta 6 urte bitartekoendako aisialdia izango da astelehenetik barikura. 7 eta 12 urtekoentzat astelehenetik barikura multikirola izango da. Aerobika, patinaia eta pilota ere izango da, asteko egun desberdinetan. 13 eta 16 urte bitartekoendako aerobika, dantza modernoa eta patinaia. Adin tarte honetako gaztetxoek asteburuko irteera egiteko aukera ere izango dute. Irteera hau Laga eta Laida ingurura izango da eta bertan tirorilana, eskalada, natur museo batera bisita eta kanoa jeitsiera Urdaibaien egin ahal izan-



go dituzte izena emandakoek. 16 urtetik gorakoendako aerobika, dantza modernoa, erraketa kirola, piraguismoa, raftign-kanoi jeitsiera eta kanoa jeitsiera. Izen emateko epea betetzear dago, beraz parte hartu nahi duena lehenbailehen joan beharko da udaletxera. Prezioei dagokienean desberdinak dira, 5.250pta.tik 2.500pta.ra. Udalak 100.000pta.-ko dirulaguntza eman- go du.

Euskal selekzioen aldeko martxa Elgetara

Uztailak 31n Elgetara iritsiko da, Euskal selekzioen aldeko mendi martxa. Mendi Martxa Trebiñon irtengo da uztailaren 28an, bederatzi egun eta gero Uztaritzen emango zaiolarik amaiera. Elgetara bostgarren egunean iritsiko da martxa. Gimnasioan egingo dute lo eta hurrengo egunean iparralde-rantza abiatuko dira autobuse-tan, bertan azken egunak igarotzeko. Mendi martxan izena eman nahi duenak, 943 491 626 telefonoan jasoko du informazio gehiago.

Lanbide hastapena

Deba Goieneko mankomunitateak, lanbide hastapenerako ikastaroak martxan jarriko ditu datorren ikasturterako. Aurreinskripzioa udaletxean egin behar da ekainaren 28a aurretik edo ahal den bizkorren behintzat. Matrikula berriz, Arrasaten egin behar da, uztailaren 2tik 13a artean. Industria mekanika, tentsio baxuko elektrizitatea, altzarigintza, sukaldaritza, bulegoko auxilierra eta igeltserogintza dira, erakutsiko diren lanbide perfilak.

Elgetako trikitixa eskolak 10 urte egin zituen

Kalean ospatu zuten herriko trikiti eskolakoez hamargarren urteurrena. Ekainak 21ean soinu eta panderoekin saioa egin eta gero Ozkarbin batu ziren merienda goxoa jateko. Adolfo Jainaga izan da urte hauetan herriko gaztetxoek trikiti sonuak irakasten ibili den maixua. Zorionak eta urte askotarako.

GRUPO
IFA Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel:
76 80 98.

ALDI

Andoni Bolinaga
METALAK
FS7 18

Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

Hasi dira autengo jaiak

Egitarau ezinhobea osatu du jai batzordeak

Atzo hasi eta domekara arte luztauko dira aurten-go Ferixa nagusiko jaiak. Jaiak antolatzeko udale-txeak izan duen aurrekontua 5.300.000 pta ingurukoa izan da, garbitasuna barne. Gasturik haundiena igandeko azokakoa da, 1.100.000pta.ko aurrekontua du. Animaliekin izandako arazoak direla eta azken ordurarte zalantzak izan dira azokarekin, baina egingo da.

Jaiak antolatzen, Gaztetxea, Guraso Elkar-

tea, bestelako elkarteak, Txirrindulari Elkartea, Pilota Elkartea eta Jubila-tuen bazkaria gertatzen dutenak daude besteak beste.

Atzo, haurrak izan ziren egunez protagonistak eta gauean kas-kajoen ordua iritsi zen. Barikuan, "Allo Europa" antzerkia izango da poli-kiroldegiko kantxan, zapatuan asto karrera, Real Santa Cecilia Maria-txiak eta tanborrada. Domekan azoka, 4'terdi-



Tanborrada rako dena prest

ko txapelketako finala eta B Vocal taldearen emanaldia daude besteak beste. Aurten lehenago egiten asto karrera berreskuratuko da. Irabazleak

25.000pta, bigarrenak 15.000pta eta hirugarrenak 10.000pta jasoko dituz. Hala ere parte hartzen duten asto guztiak 2.000pta jasoko dituzte.

Josu De Vega: "Edozein Jaian murgiltzeko egitaraua osatu dugu"

Zein da jai batzordearen balorazioa? Jaien aurkezpena eta jaietako egitaraua kalitatea oso kontuan hartuta egin dugu. Balorazioa positiboa da etorriko diren musika, antzerki eta bestelako taldeak punta puntakoak direlako.

Jai batzordean nolakoa izan da parte hartzea? Hainbat taldetako hamasei bat lagun aritu gara, lanak banatu eta egitarau polita lortu

dugu. Dagoen aurrekontua kontuan izanda, taldeekin berba asko egin behar da, Elgetara etortzeko egiten duten esfortzua eskertu beharrean gaude. Negoziaketa hauek asko erretzen dute. Jai batzordeak hartutako zenbait erabakiri, goitik jarri zaizkion trabak gehitzeak, batzordearen etorkizuna zalantzan jarri dute.

Zeintzuk dira egitarauko ekintza

aipagarrienak? Programan adin guztietako herritarrak jaiari murgiltzeko ekintzak daude. Haurrendako egunero egongo dira ekintzak. Nagusientzat, barikuan izango dugun Markelineren "Halo Europa", emigrazioa gaitzat duen kale animazioa, zapatuan iaz berreskuratutako tanborrada eta mariatxi mexikarrak eta domekako B-Vokal taldea gomendatuko nituzke.

INAKI JATETXEA

Leku paregabea, eguneko menua
Tel: 943 76 82 83

OSTATU JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 850 pzta.
Karta.

Polikiroldegia alokatzeko enkantea zabalik

Ekainaren 18an, Udal Kiroldegiko, Pilotalekuko eta Bola-Toki tabernako ustiaketaren kontzesioa kaleratu du Udaletxeak. Instalazio hauen kontzesioa enkantean parte hartzen dutenen artean egingo da eta uztailaren 9an amaitzen da eskaerak

aurkezteko epea.

Proposamenak aurkezten dituztenen artean udalak erabakiko du zeinen esku geldituko den instalazioen garbiketa eta kontrola, lehiaketan jasotako puntuen arabera. Kontzesioaren iraupena bi urtekoa izango da, bai

na urtero luzatzeko aukera egongo da.

Udalak eskatzen dituen baldintzen artean, instalazioak egoera onean mantentzea, jabetxean eguneko menua eskaintzea, pilotalekua eta polikiroldegiko garbiketa egitea eta hileroko errenta

daude besteak beste.

Enkantea egiteko orduan kontuan hartuko dira antzerako zerbitzuetan izandako esperientzia, euskara ezagupena (gutxienez jendaurrean egongo den pertsonak) eta eskainitako hileroko errenta.

Etxebizitza beharra ezagutzeko galdeketa

76 etxe eraiki daitezke Torrealdean, 32 babes ofizilekoak

Datorren astean, etxebizitzaren inguruan bai herritarrek eta baita industrialdeko langileek dituzten beharrak ezagutu nahian, galdeketa banatuko du udalak herriko etxe guztietan. Torrealdean 76 etxebizitza egiteko beharra dagoen ala ez erabakitzeko balioko du galdeketa.

Etxebizitza gehiagoren beharra dagoen ala ez ezagutzeko, galdetegia banatuko du laster uda-

lak. Honekin, etxebizitza beharra dutenek erosiko lituzketen etxeek, zein ezaugarri izan behar duten ezagutzea da udalaren nahia. Etxebizitzaren beharra dutenen ezaugarriak, behar diren etxebizitzaren ezaugarriak, etxea erosteko premia... izango dira galdeketa ardatzak. Etxebizitza erostean interesatuta daudenak udaletxean jaso dezakete informazio gehiago.

Etxebizitza beharra

dagoela ikusiz gero, Torrealdean 76 etxebizitza eraikitzeko proiektuarekin aurrera jarraituko luke udalak. Torrealdean eraiki daitezkeen etxebizitzetatik 32 babes ofizilekoak izango dira. Etxe hauek metro karratuen arabera 13.980.000 eta 15.315.000 pta.takoak izan daitezke. Lehenengoek 85 metro karratu izango lituzkete eta bigarrenek 70. Etxebizitza hauen prezioen barruan, 10 metro karratuko traste-

lekua eta garajea daudela kontuan izan behar da.

76 etxebizitzet gain 114 garaje ere eraikitzea aurreikusten da. 500 metro karratuko, plaza eta gunee berdea eta 384 metroko aisirako gunea ere badaude proiektuaren barnean. Honetaz gain, Torrealderako sarrerak ere hobetuko dira, bai oinezkoentzat eta baita autoentzat ere, Bergara eta Salvador kaletik sarrera zuzenak eginez.

ELKORO TORLOJU LANTEGIA
DEKOLETAIA ETA
ELJAZIO SISTEMAK

Berraondokua z/g 20690 Elgeta
 P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
 Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g. 20690 ELGETA
 Tel. eta faxes: 943 78 90 21

Antonio Iturrigaztelu 71 urte, Jubilaua

Zenbat urte Ferixa Eguna antolatzen? Lehengo urtera arte ibili nintzan eta danera 10 bat urte-edo.

Nobedadeik badago 2001. Ferixan? Ez dot uste ze ganauakin ezin da egon nobedade haundirik. Seguruenik zaldi gehixau egongo dira.

Zenbat lagun ibiltzen ziñeten ferixia antolatzen? Nik ganauak eta makinerixia eruatzen neban eta beste pare bat lagunekin ibiltzen nitzan. Ez zeban lan asko eukitzen, goixian izaten zan arazua, autuak kendu eta holakuak egitten.

Ferixatik zerk erakartzen zaittu? Ganau barrixa ikustia da polittena ze beste gauzak makinerixia eta berdiñak izaten dira.

Jaixak ondo pasatzeko gomendio bat? Danen laguntasuna eta bakia.

Noiz bildu da jende gehixen ferixan? Jendia nahiko antzera etortzen da urtero baiña balitteke beste urtetan gehixau etorri izana.

Txuletia hszurrakin edo barik? Hazurrakin, duda barik, nik hori ez dot sinisten, nahikua behi zoro jandakuak gaz.

4 térdiko finalerako fateko asmoik? Bai, badakat fateko asmua.

Bizitzan pasau jatzun gauzaik polittena? Neretako ezkondu nintzan urtia izan zan gauzarik polittena. Esaten danez, txarrixa hildako astia eta ezkonduetako urtia izaten dira onenak.

Oporretan nora zoiaz? Zeiñekin? Bai hoixe pentsatzen nabil. Nere illobekin noia.

Triste jartzen zaittun zeozer? Lagunak bizitatzera jautia ospitalera.

Eta pozez saltoka? Jaixetan edo oporretara jautia. Baiña beti etxera etortzeko gogua eukitzen da.

Zelan hasi eta amaittuko dittuzu jaixak? Hasi egueñian txarangiakin eta bukatu ahal dan eta onduen.

Norbait miresten dozu? Langillia dan jende guztia.

San Fermiñetarako fateko asmoik? Lehen faten giñan, baiña oiñ ez.

Noiz maiteminddu ziñan lehenengo aldiz? Danen moduan soldaduzka inguruan, badakizu handik etorri eta...



Zer egin bihar dozu oingo urteko Ferixa nagu- sixan? Ezer berezirik bai?



M. Pilar Garai
(49 urte) Etxekoandina

Herriko jaixak ondo pasau eta disfrutatzeke dira, lanik ez dotenik egin bihar ondo pasau. Afarixak euki biharriarik dauzkat etxian inbitauak eta erei dakat ondo emon biharra.


Momentuz ondo pasatzia besteik ez dakat. Uste dot afarixen bat be egingo dogula, gaiñera elegante be jantzi bihar gara. Juergia be egingo dot, urtian behin dira jaixak.

Araitx Ojanguren
(15 urte) Jkasia



Tziar Unizar
(33 urte) Bihargiña

Oingo urtian lehego urtekua be aprobetxau bihar dot, ze lehego urtian haurdun nenguan eta ezin izan neban ezer egiñ. Oingo urtian oso ondo pasau biharra dakat.



Jose Ramon Sarasua
(43 urte) Bihargiña

Lanik behintzat ez dot egin bihar aste guztia jai hartu dot-eta. Bestetik pare hiru bat afari dakaraz eta zapatuan inportantiena: tanborra jo. Bestela lehego urtetakuen antzera janian eta edanian.


Jai hartu bai baiña sosiuz sosiuz ibili biharko gaz, osasuna ez dakau oso ondo-eta... Eguardi inguruan bueltatxo bat baiña gabaz ezer be ez, etxera!

Gatzon Elkoro
(54 urte) Pentsionista



Eguenian eta barikuan lan egin biharra dakat, zapatuan juergatxo bat bota, ferixia ikusi eta arratsalderuntz ultzia kendu eta astelehenian berriro lanera. Ez dakat ezer berezirik egitteko

Aitor Alberdi
(26 urte) Bihagiña



Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

Kopa bat

P a t x i Taberna

Aintzane denda
zugandik gertu
behar duzun
beste



Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297

**...eta kitto!, Drogeteniturri eta
Goibekokale aldizkarien
AUTOEN GEHIGARRIA**

Hau da Eibar, Elgeta eta Ermua aldizkariok hilabete honetan argitaratu dugun bigarren eskuko AUTOEN GEHIGARRIA.
10.000 ale kaleratuko dira, 35.000 irakurle ingururendako.

6. zenbakia. 2001eko ekaina

Publizista: *Belen Ulazia*. Diseinua eta maketazioa: *Koldo Mitxelena Zumarán*.

Tirada: 10.000 ale. Tel. 943 20 67 76 Faxa. 943 20 67 76



Autoak aukeran

ETORMOBIL (Peugeot banatzailea)

Otaola 22

EIBAR

Tel. 943 20 09 96/66

Faxa. 943 20 36 27

MODELOA	MATRIKULA	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
CITROEN XANTIA 1.9 TD		1994	L/D, I/Z, J/E	
RENAULT MEGANE 1.6 SP		1996	L/D, I/Z, J/E, Airbag	
VW GOLF III 1.9 D 3p		1994	L/D	
PEUGEOT 306 1.9 XSDT		1996	L/D, I/Z, J/E	
CITROEN BERLINGO 1.9 D COMBI		1998	L/D	
VW GOLF III 1.9 TDI 3p		1994	L/D, I/Z, J/E, Izpilu elektrikoak	
VW GOLF III 2.0 GTI 5p		1993	L/D, I/Z, J/E	
PEUGEOT 205 GTI			J/E, I/Z, Alarma	
PEUGEOT PARTNER DIESEL FURGOIA		19997	L/D	
NISSAN VANETTE 2.3 D COMBI		1995	J/E, I/Z, J/E, Aire egokitua	
NISSAN PATROL 2.8 D GR		1995	J/E, I/Z, J/E, Aire egokitua	

Matrikulatutako autoetan aukera zabala: Peugeot 106, 206, 306, 406...

Finantziazioa zure neurrian

A/E: Aire Egokitua J/E: Jasogailu elektrikoak L/D: Lagundutako direkzioa AB: Airbag I/Z: Itxidura zentralizatua

**24 ORDUETAN
ZABALIK**



Barrenengua kalea 3

Tfnoa. 943 20 73 74

Faxa: 943 20 70 91

20600 EIBAR

**SEAT
EIBAR**

**Otaola hiribidea 17
943 12 18 00**

MODELOA	MATRIKULA	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
AUDI A6 2.6 150 cv		1995	Klimatizadorea, J/E, I/Z, ABS	1.500.000
AUDI A4 (hainbat) TDI 1.8 TURBO; 1.8...		2000	Klimatizadorea, J/E, I/Z, ABS	3.600.000
GOLF TD 75 CV		1994	J/E, I/Z, L/D, Irratia	1.100.000
PEUGEOT 405 SRi		1990	J/E, I/Z, L/D, Irratia	400.000
OPEL KADETT 1.8 115 CV		1990	J/E, I/Z, Irratia	400.000
GOLF Variant familiarra V5 150 CV		2000	Klimatizadorea, J/E, I/Z, L/D, Irratia, ABS	2.850.000
TOLEDO 1.9 TDI 110		2000	A/E, L/D, I/Z, J/E, ABS, Airbag	2.350.000
VW New Beetle 2.0 115 eta TDI 90		2000	A/E, L/D, I/Z, J/E, ABS, Airbag	2.750.000
ZX 1.9 TD Avantage		1992	L/D, I/Z, Irratia	650.000
IBIZA 1.8 TURBO Cupra R 180 CV		2001	L/D, Irratia, I/Z, J/E, Klimatizadorea, ABS, Airbag, CD, ESP	3.200.000
VW Transporter 2.5 TDI 102 mixta		1999	L/D, Irratia	2.300.000
ALAMBRA 1.9 TDI 110		2000	L/D, Irratia, I/Z, J/E, Airbag, ABS, A/E	3.250.000
IBIZA - CORDOBA				Km oferta
LEON - TOLEDO		2001	L.D., Irratia, I.Z., Airbag	harrigarriak

AVIA

ESTACION DE SERVICIO EIBAR, S.A.

FURGONETAK ETA AUTOMOBILAK GARBITZEKO MAKINA
(LEHORKETAREKIN ETA LEHORKETA BARIK)
LUBRIFIKATZAILEAK
GASOLEO BANAKETA ETXEETARA

Torrekua 2
Tel. eta Faxa. 943 20 62 48

20600 EIBAR

COSTAMAR

**ASEGURUAK
INMOBILIARIAK**

Urkizu pasealekua, 11
20600 EIBAR
Tel: 943 12 71 80
943 12 04 37
Faxa: 943 12 71 80

**MAPFRE
ASEGURUAK**

Behar duzun guztia:
Aseguruak
Jubilazio planak
Inbertsio fondoak...

LOURDES URZURIAGA
987 delegatu zenbakia

Urki behea, 21-23
EIBAR

☎ 943 82 04 49
Mobila: 607 40 19 29

AUTOMOBILAK

LAIGOR

ferca

I. Ojaguren 2. Tel: 943 20 64 74
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

T. Anitua 3. Tel: 943 20 18 99
20600 EIBAR (Gipuzkoa)



J.A. LASKURAIN

ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK

ASEGURU ARTEKARIA

D.G.S. 1.408 - J

R.A.C.V.N.-ren ordezkaritza

Bidebarrieta, 4-1 ezk.
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13 / 943 12 05 30
Faxa. 943 70 28 87 **EIBAR**

SEAT LEON

Diesel 68 cv

TDi 90-110-150 cv

gasolina 75-105-125-180-204 cv 4x4



ZATOK ETA EZAGUTU EZAZU!



SEAT

Eibar Motor, S.L.

Deba Beherako
Seat Zerbitzu Ofiziala

Otaola Etorbidea, 17 - EIBAR

Tel. 943 20 30 93 / 943 12 18 00 - Faxe. 943 12 03 12

**Auto kopuru mugatua. Kilometro 0.
Ibiza, Cordoba eta Leon.
Gasolina eta Diesela.**



**Ez
zenbaki bat
bakarrik.**

PEUGEOT



**Erreferentzia
berria
baizik.**

*Zatoz
ikustera!*

Etormobil

Otaola hiribidea 22. EIBAR.

☎ 943 200 996 / 66 Faxe. 943 203 627

307



PEUGEOT

LAGUNMOBIL

C A R R O C E R I A S



Lantalde profesionala ■ Ardura handiz egindako konponketak ■ 1.000 m² instalazioetan

KOKAPENA



Olaso Poligonoa (ELGOIBAR)



Telefonoa:

943 74 44 30

Faxe:

943 74 44 36

NISSAN ALMERA TINO BERRIAK

SUTAN JARRIKO ZAITU



2.665.000
pezetatik aurrera




SEGURTASUNA



MULTI-LINK
ESEKIDURA



MODULABILITATEA



Nissan Brake Assist

N.B.A BALAZTAK

ALDIBI AUTOAK, S.A.

ELGOIBAR-ARRASATE-BERGARA

Olaso, 23 -ELGOIBAR- Tel.: 943 74 20 37. Faxa. 943 74 35 24.

aldibi@nortekar.com



Nortekar

HYUNDAI



MENDARO AUTOAK, S.A.

Olaso, 27 · ELGOIBAR · Tel. 943 743 200

E-posta: hyundai@mendaroautoak.com

http: www.hyundai.es

Otaola, 27 · EIBAR · Tel. 943 202 500

Zumalakarregi, 1 · DONOSTI

Tel. 943 312 200

Pinar, 21 · IRUN · Tel. 943 610 200



ELANTRA

diseinu adimentsua



CORSA

bizitzeko gosea



OPEL



ANALSA

Olaso, 25 · ELGOIBAR

Tel. 943 744 012 · Faxe: 943 743 206

E-posta: opel@analsa.com · <http://www.opel.es>

Otaola, 27 · EIBAR

Tel. 943 700 841

Plaza auzoa, z/g · MENDARO

Tel. 943 755 072

49 urte automobilaren zerbitzura.

ELGOIBARREN · 1.500 m. ERAKUSTOKIA · 1.500 m. TAILERRA · 1.000 m. ORDEZKOAK eta OSAGARRIAK.

MENDARO AUTOAK

MENDARO

Plaza auzoa z/g
Tel. 943 75 50 72 / 608 77 33 98

MODELOA	MATRIKULA	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
OPEL VECTRA 2.0 DTI 4p		1997	I/Z, J/E, L/D, Airbag, A/E, ABS	
OPEL ASTRA 1.4 3p		1992	Irratia	
CITROEN XANTIA 1.9 TDI		1997	I/Z, J/E, L/D, A/E, CD	
NISSAN PRIMERA 1.6 16V		1999	I/Z, J/E, L/D, A/E, Airbag	
NISSAN ALMERA 1.6 16V		1998	I/Z, J/E, L/D, Airbag	
PEUGEOT 306 XSDT SEDAN		1996	I/Z, J/E, L/D, A/E, Airbag	
HONDA CIVIC 2.0iTD 5p		1997	I/Z, J/E, L/D, A/E, Airbag	
FORD FIESTA 1.8 D 5p		1998	I/Z, J/E, L/D, Airbag	
RENAULT CLIO 1.9 D 5p		1997	I/Z, J/E, L/D	
SEAT IBIZA 1.9 D 5p		1997	I/Z, J/E, L/D	
HYUNDAI ACCENT 1.5 5p		1996	I/Z, J/E, L/D, A/E	
FORD ESCORT 1.8 16 V		1992	I/Z, J/E, L/D, Airbag	
VW GOLF 1.8i 3p		1993	I/Z, J/E, L/D, A/E, Llantak	

A/E: Aire Egokitua J/E: Jasogailu elektrikoak L/D: Lagundutako direkzioa AB: Airbag I/Z: Itxidura zentralizatua

TAILER MEKANIKOAK

VALDI

Autoen konponketa orokorra.
Injekzio mekaniko eta elektronikoa.
Alarmak, errobera aldaketak,
motorrendako erroberak...



Barakaldo 19, behea
Tel. 943 12 73 98
20600 EIBAR (Gipuzkoa)



GARAJEA

Legarre

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Legarre, 2
Telefono eta Faxe: 943 20 63 71


20600 EIBAR
(Gipuzkoa)

— ACITAIN, S. A. —

Zerbitzugunea

- Olio aldaketa azkarrak
- Gurrpilak oso modu onean
- Gasoleoen zuzeneko banaketa
- Garbiketa automatikoa eta presioarekin

AVIA



Tel. 943 12 16 62 Faxa. 943 12 18 62

EIBAR

KALAMUA

Marka guztien mantenimendua

Mekanika eta elektrizitatea, neumatikoak,
konponketak, amortiguadoreak

Isasi, 31. Tel. 943 20 34 04 EIBAR

RALLYE SPORT

AUTOMOBILAK

Bermatutako
bigarren eskuko kotxeak

Barrena 32 - 20600 EIBAR - Telefono eta faxa: 943 12 03 09



AUTOENDAKO ERREMINTAK, ALDAGAIK
ETA OSAGAIK

Otaola 7

EIBAR

Tel. 943 70 21 31

Gidatzeko Karnet Guztiak


SOLOZABAL

autoeskola

TORIBIO ETXEBARRIA 5 - 1.

- Klase teoriko eta praktikoak norberak nahi dituenean.
- Klase teorikoak ikusentzunezkoen abantailak erabilita.
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko nazioarteko agentzia ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

Tel. 943 70 23 84



Garabi zerbitzu
iraunkorra
Tfnoa. 608 17 78 89

ERMUA KARROZERIAK, S.L.

Zeharkale, 26 300 Postakutxatila
Tfnoa. 943 17 62 66 ERMUA



AUTO

Aurrera

KONPONKETAK

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Urtzaile, z/g
Telefono eta Faxa: 943 20 80 65

20600 EIBAR
(Gipuzkoa)

TODO AUTO



PRESTAKETA, TUNING ETA
LEHIAKETAN ESPEZIALISTAK

AUTOEN STOCK-A DUGU

KARROZERIAKO
KIT-AK, LLANTAK,
ESKAPEAK,
SUSPENSIOAK,
SOINU-EKIPOAK,
BOLANTEAK, ETB.
ZURE EROSKETAK
FINANTZATZEN DITUGU



AGENTE
OFIZIALA



Bizkaia etorbidea 5-behea Tfnoa. eta Faxa: 943 17 69 10 ERMUA



Tailer profesionalak

ICI PAINTS, HERBERTS INDUSTRIAL,
3M PRODUKTUAK ETA KARROZERIA
OSAGAIEN BANATZAILEA

PINTURAS ARRATE, S.L.

Arane, 13 EIBAR
Tel. 943 20 41 04 - 943 20 41 37
Faxa. 943 70 06 89

e-maila: parrate@terra.es



Ego Gain, 4 - behea
(San Andres pasealekutik)

EIBAR
Tel. 943 20 34 45

ZEZEN
BIDE



AUTO
ESKOLA



Autoak aukeran

...eta kitto!, Drogeteniturri eta
Goibekokale aldizkarien

AUTOEN GEHIGARRIA

Enrike Gorrotxategi: "Euskararen kalitatea gero eta eskaxagoa da Elgetan"

Enrike Gorrotxategik hilabete gutxi daramatza Euskara, Turismo, eta kultura teknikari gisa. Hala ere, denbora honetan herriak dituen behar garrantzitsuenak zeintzuk diren ohartzeko astia izan du. Azken urteotan Eusko Jaurlaritzan itzultzaile eta hizkuntza normalkuntza teknikari jardun ostean gauza berriak probatu nahi izan ditu. 35 urterekin ez dauka lan makala.

Zelan lehenengo hilabete hauek?

Denetarik egon da, baina, orokorrean ondo.

Zein da zure eginkizuna? eta politikoena? Orain arte ez da Elgetan horrelako posturik egon... Nire ustez teknikarion eta politikoen arteko aldea da teknikariok proposamenak egin ditzakegula, baina, erabakia beti politikoei hartzen dutela. Gero, proposamen horiek onartzen baldin badira guk egin edo burutu beharko ditugu, eta baita guk proposatu gabe politikoei hartutako erabakiak ere.

Elgetarrek badaukate interes kulturalik?

Kultura oso zabala da, gauza asko hartzen ditu: literatura, dantza, musika, zinea eta beste hainbat gauza. Gainera, normalean beti ikuspegi elitista

batekin lotzen dugu, adibidez, musika eta kultura lotzen badugu beti etortzen zaigu burura musika klasikoa, berdin dantza eta baleta, literatura eta liburu sendo eta sakonak... Eta horrek ere kultura dira bai, baina, baita trikiti bat, bertso bat edo tango bat, gastronomia... Beraz, nik uste dut elgetarrek beste guztiek bezala izango dituztela interes kulturalak, beti dagoleako zerbait gustuko duzuna. Beste gauza bat da ekitaldi kulturaletan parte hartzeko ohitura, eta horretaz, ez dakit jendeak zernolako ohiturak dituen. Orain arte antolatutakoekin denetarik egon da, batzuetan jende asko, eta besteetan gutxi.

Zelan indartu daiteke, edo zelan bultzatu daiteke interes hori?

Horretarako modu bat da eskaintza zabaltzea eta



handitzea, hau da, gauza diferenteagoak eta gauza gehiago, baina, hori gaitza da herri txiki batean, gauza normaletarako publikorik ez baldin badago, eskaintza zabala izanda gauza bakoitzerako publiko ere urria izango litzaiteke. Egia da normalean zenbat eta gauza gehiago ikusi orduan eta zaletasun handiagoa sortzen dela. Hala ere, beste teknikari

batzuekin izandako bilereetan ikusten da jendeari gero eta gehiago kostatzen zaiola kontzertuetara, antzerkira eta horrelakotara joatea. Herri guztietan egoten dira pertsona batzuk ia ekitaldi guztietara joaten direnak, baina, gainontzekoak erakartzea kostatzen da.


Zeintzu behar ikusten dituzu?



IRAMA
ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025



ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078

Batez ere dirua. Gaur egun edozer gauza egiteko dirua behar da, edozein talde ekartzeko dextente ordaindu beharra dago, eta kalitatezko gauzak ekartzeko gehiago oraindik. Espaloia bukatzeko ere dirua behar da, oraindik argiak, soinua, telak, horiei eusteko egiturak, aulkiak eta abar falta dira.

Zeintzu dira zuk edo kultura sailak dituen erronka nagusiak?


Espaloia bukatu eta erabilerera egokia ematea izan daiteke erronketariko bat.

Espaloia. Zer gertatzen da? Polemika egon da, zelan daude gauzak?

Oraindik udalaren eta hezkuntza sailaren arteko kompetentziak argitzeke daudela uste dut, badiña hor zenbait gauza argitu edo konpondu beharrekoak. Dena den, espaloia hor dago, eginda, baina, ekipatu gabe: argia, soinua, telak, horiek denak zintzilikatzeko estruktura, aulkiak eta abar falta dira oraindik. Momentuz ez dago dirurik ekipatzeko, eta horrek esan gura du erabili erabili daitekeela gauza puntualak egiteko, baina, programazio bat ezin daitekeela egin.

Diru mordo bat gastatu da. Horri irtenbide ezberdinak eman behar zaizkio. Nork kudeatuko du?

Ez dakit nork kudeatuko



duen. Momentuz udal-txeak kudeatzen du, baina, egokia litzateke beste norbaitek kudeatzea, kultur talde batek esaterako, horrek joku gehiago emango luke. Baina, lehengo haritik, kudeaketa egokirako osorik ekipatuta egotea eskatzen du.

Elgetako Udalak diru gutxi bideratzen du kulturarako —600.000 pezeta inguru—. Nola banatzen duzue diru hori?

Zein da zuen helburua, aktibitate asko eta merkeagoak edo kalitate gutxiagokoak antolatu, edota gutxi batzuk eta onak? Zein da planteamendua.

Diru horrekin aktibitate asko egiteko aktibitateok oso merkeak edo debaldekoak izan behar dira. On onak egiteko ere ez du ematen, diru horrekin on onak bakarra edo egin daitekeelako. Eta bera justuan. Uste dut ahal

dena egiten dela, eta aukera baldin badago zerbait ona ekartzeko ekarri egin behar dela.

Zein erlazio du Udalak beste talde edo elkarte kulturalekin, hala nola, Goibeko, Gaztetxea, Guraso Elkarte...

Udalak, ahal duen neurrian, laguntzen ditu talde horiek. Lehen esan bezala, ez dago diru handirik, eta horregatik, udalaren laguntasuna batez ere materiala izaten da: materiala laga, lokalak...

Goiena proiektua ere hor dago. Herriarentzat aberasgarri izango litzateke telebista ikusteko aukera izatea...

Beti da aberasgarria. Zenbat eta aukera zabalagoa izan, orduan eta aberatsago norberarentzat. Gainera, gertuan ere egoten da zer ikusi eta zer konta, eta

Espaloia ekipatzeko ez dago dirurik momentuz, eta horrek esan gura du erabili erabili daitekeela gauza puntualak egiteko, baina, programazio bat ezin daitekeela egin

**IBAIBA-
RRIAGA**
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

Jarri zure iragarkia

Tel.: 943.78.90.85



bertako euskarari laguntzeko bide bat ere izan daiteke..

Inguruko herriekin harremanik badaukazue ekitaldiak elkarrekin egiteko?

Oker ez banago, Jaurilaritzatik funtzionatzen du antzerki sare batek, baina, sare horretan parte hartzeko eskatzen da hainbat antzerki lan programatzea urtean, ez dut gogoratzen gutxienez zenbat diren (4, 5...). Horrek bide ematen du laguntzak jaso eta merkeago egiteko, baina, lehen esan bezala, ez dago dirurik gutxieneko lan horiek programatzeko. Beste herri batzuekin elkar lanean aritzeko ere uste dut guk ere programazio minimo bat egiteko gaitasuna eduki beharko genukeela. Urtean gauza bat edo bi egiteko ez dakit, ba, elkar lan hori egiterik merezi duen. Diputazioak deituta lau aldiz bildu gera Gipuzkoako herrietako teknikariak, eta udazkenetik aurrera ere hilean behin edo biltzeko asmoa agertu zuen diputazioak, beraz, beste herriekin nolabaiteko harremana egon badago, baina, ez ditugu arazo berak kultur ekitaldiak antolatzeko Donostiak, Irunek, Eibarrek, edo Elgetak, Antzuolak eta antzerako herriak.

Zure beste eginbeharretako bat herrian turis-

Udalak, ahal duen neurrian, laguntzen ditu herriko taldeak. Ez dago diru handirik, eta horregatik, udalaren laguntasuna batez ere materiala izaten da: materiala laga, lokalak...

moa indartzea da. Lan zaila...

Zaila da, eta nik uste dut Elgetara jendea ekartzeko dagoen aukera garrantzitsuena eta ia bakarra mendi museoa izango dela.

Zer eskaintzen du Elgetak beste herriek eskaintzen ez dutena?

Gaitza izaten da esatea zer eskaintzen duen leku batek besteek eskaintzen ez dutena, kasu batzuk kenduta, gehinek antzerako gauzak eskaintzen baitute; baina, era berean, bakoitzak bere ikutuarekin. Esate baterako, lasaitasuna eskaintzen duela esaten baduzu, hau baino lasaigoak hamaika daude, eta horrela beste gauza guztiekin. Hori bai, paraje bakoitzak badu bere enkantua.

Mendi Museoa ei da proiketarik garrantzitsuena. Kontaiguzu...

Mendi museoaren bideragarritasun txostena bukatzeaz dago, jai ostean amaituko dute. Oraindik ez dakigu zenbateko aurrekontua izango duen museoak, eta egin edo ez dirulaguntzaren arabera izango da. Egiten baldin bada, laupabost urtetan bukatuta egon beharko da. Mendi federazioak ere gogo handia du museoa egiteko, eta Elgetaren aldeko apustua egin dute, baina, hemen ez baldin bada egiten, beste norbaiten egiten saiatuko dira.

Euskara teknikaria ere bazara. Zer dago egiteko arlo honetan?

Zorionez, Elgeta herri euskalduna da. Hala ere,

gauza bat da jakitea eta bestea erabiltzea. Erabilean ere badaude hainbat arazo, esate baterako, bertako euskara galtzen ari da, eta euskararen kalitatea ere gero eta eskaxagoa da. Hor ere du aiton-amonak ditugu, eurak dira euskaraz ondoen egiten dutenak. Egiteko gauzen artean, eta inori ezer eskatu aurretik, udaletxeak berak funtzionatu beharko luke euskaraz. Neurri handi batean egiten du, baina, beti hobetu daiteke.

Elgetak badu UEMAn sartzeko aukera. Zergatik ez da sartu? Arazoa ekonomikoa da?

Elgetak betetzen ditu UEMAn sartzeko baldintzak, hortik aurrera, UEMAn sartu edo ez erabaki politikoa da. Ez dut uste arazo ekonomikoa denik, eta abantailen gainera, berriz, ez dut uste abantaila horiek direnik arrazoi nagusia horrelako elkarte batean sartzeko. Nik uste dut horrelako elkarte batek batez ere babesa ematen duela euskara kontuetan zenbait neurri hartzeko. Hala ere, euskararen aldeko erabaki sendoak ere hartu daitezke UEMAn sartu gabe, baldin eta horretarako borondaterik baldin badago. Beste modu batera esanda, alperrik da UEMAn sartzeari gero euskara bultzatzeko politika garbirik ez baldin badago.

Mendi museoa Elgetan ez bada egiten beste leku baten egiten saiatuko dira Mendi Federazioko kideak

Berezitasuna.
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behokoa Baserria. Tel: 860156

Elgetako neskek Gipuzkoako txapelketako erdifinaletan kanporatuak

Denboraldi bikaina egin arren, Elgetako neskek ezin izan zuten irabazi Oñatin jokatu zuten partidua. 2-1ko emaitzaz galdu zuten. Finalera iristeko partidua hau irabazi beharra zeukaten, baina finaletik kanpo geratu ziren azkenean. Normalean denboraldi osoan zehar jokatu ahal izan zuten adin handiagokoek, ezin izan zuten jokatu. Gutxienezko adina gainditzen zuten. Agian hor egon zitekeen arrazoia.



Elgetar neskek partidua hasi aurretik Oñatin.

Zinaida Stahursakaya munduko txapelduna Elgetan garaile

Arangurennek Elgetan lasterketan esku hartuko du




Stahursakaya munduko txapelduna da egun.

Iaz bezala aurten ere Bizkaiko emakumeen birako etapa bat amaitu eta hurrengo egunekoari hasiera eman zitzaion Elgetan. Zapatuko lasterketan hiru txirrindulari arteko esprint estu baten irabazi zuen egun munduko txapelduna den Stahursakaya. Bestalde Uztailaren 15 izango da afizonatuendako Euskal Herriko mendi-kriteriuma. Azken urteetan bezala, domeka goizean izango da lasteketa ohiko ibilbidearekin. Arangurennek esku hartuko du seguru enik. Eroriko baten ondorioz hilabete bat gelditu egon ondoren eta belauneko arazo batzuk ahaztuta, berriz hasi da konpetitzen. Bergarako lasterketan 28. egin zuen Leioan berriz ihes eginda iritsi zen 20 lehenengotan ginez.

HAIZEA
TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Artekale 3.
Mo: 656783299 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN

Saskibaloiek agur esan zioten denboraldiari afari eder batekin

Elgetako saskibaloitako taldeko babeslea den Estampaciones Intxortak afari batera gonbidatu zituzten elgetar jokalaria. Besteak beste aurtengo denboraldi bikainaz hitzegin zuten, bestalde atzera begiratzuz gauzak gaizki daude ez baitirudi jarraipenik dagoenik gazteen aldetik. Enpresa arduradunek hurrengo denboraldirako beraien asmoen berri eman zieten jokalariei, ea ba hitzegin-dakoa betetzen duten.



Valentin eta Juan Marik aspalditik bultzatzen dute kirola.

Jone Muxikak lehendabiziko garaipena eskuratu zuen Pasaian

Hainbat postu on lortu eta gero azkenean garaipena lortu zuen Jonek Euskadiko Openeko proba batean. Pasaian izan zen maiatzaren 6an. Ez zitzaion lasterketa batere erraza egin, izan ere arazoak izan zituen bizikletarekin. Azkenen besteak baino lehenago iristea lortu zuen. Ekainean, Amurrio eta Berrizeko lasterketetan parte hartu du bietan laugarren amaituz. Denboraldia jadanik amaitzear dago eta azken probatako bat Labastidan izango da Elgetako jaietan.



Jone ekarri berri duen bizikletarekin Pasaian irabazi eta gero.

Xabier Ubera Lau t'erdiko txapelketan finalerdietan kanporatua Aurten finala domeka goizean jokatuko da

Agestak itxi zion finalerako bidea Xabierrei pasa zen bari-kuan. Final laurdenetan Martinez de Irujoren aurka 10-16 galtzen joan arren buelta eman eta 22ra iritsi zen. Finalerdietan ez zuen aurrekoan bezelako partidarik egin eta sake asko sartu zizkion Agestak. Azkenean partida 22-6ko emaitzaz amaitu zen. Beste finalerdian duela bi urteko irabazleak den Leizak, Bengoetxea nafarra kaleratu zuen. Beraz finala Agesta eta Leizak jokatuko dute azoka nagusi egunean.

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

VIVO

J a n a r i

d e n d a

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta

Tel: 768050-789031 Faxes: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanpazioa

TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK



Hori dok atzia hori! Tentia eta gogorra! Okelatsua, baina ez maxkala! Zer ez nuke egingo hori nere esku artian eukitzia-gaittik! Aibadios! Oin bueltia hartu biar jok. Hala! Hori dok aurria hori! Ez jaukak horrek atzian inbidixaik! Horrek begixok neri barre egingo baloste! Eta horrek ezpanok neriekin bat egingo balebe! Eta gerri buelta zoragarri hori nere eskuetan balego! Eta goragoko bular eder hori! Eta berehagoko erropak ezkutatzen daben hori! Ene jesus! Zoratu bihar nok!

Trankil irakurliok! Hortik aurrerakuak zeuek sortutakoak izan biharko dira-eta. Baina bittartian jolas txiki bat jarri bihar dotsuek aukeran, jaixetan be bagaoz-

Danok bardinak

eta.

Ia, ezetz asmau nork pentsau dittuen hasierako horrek. Neska bat izan da mutil eder bat ikusterakuan? Ala mutil bat izan da neska zoragarri bat ikusterakuan! Eta zergatik ez mutil bat beste mutil bati begira? Edo neska bat beste neska batekin aztoratuta?

Gure nagusixak esaten dabe lehen ez zeguela holakorik. Egixa esan, lehen ez zeguena holakorik esatia zan, baiña bestia, behekaldeko hazkura, oingo antzera lehen be egongo zan. Danok gara bardinak

horretan, danok daukagu hazkura, behian baiño gehixau buruan, batzuk hobeto kontrolatzen dabena, eta beste batzuk ez hain ondo, baiña euki danok.

Eta burudunak ganez, geuk erabaki bihar bakoitzak noiz eta norekiko eduki bihar daben hazkura hori. Baina gure gorputzak hori baino buru gehixau daukanez, hazkura horrek kasurik bez buru hotzari, berak nahi dabenian etorri eta berak nahi dabenarekiko. Eta orduan zoramena, ni ez naiz holakua, hau kontrolau biharra dago eta

antzerako tontokerixak.

Bada, ez! Akabo! Eduki deixela bakoitzak nahi daben hazkura eta inori kalterik egin barik egin deixela bakoitzak hazka berak nahi daben moduan, osasuntsu bizi izateko, edo nazio erai-kuntzarako, edo beste edozertarako horren modukorik ez dago eta.

Askok ez dozue jakingo zeren kontura datorren hau, ba hemen azalpena, uztailaren 28a San Pedro bezpera izatiaz gain, Gai eta Lesbianek euren harrotasuna adierazteko eguna dabe, eta oin arte horrenbeste sufritu daben horiek hau eta halako beste asko be merezi dittue. Jaixak ondo pasau eta danok be ahalegindu hazkurak kentzen, horretan danok berdinak gara-eta!

Jabier Arantzeta

Burudunak ganez, geuk erabaki bihar bakoitzak noiz eta norekiko eduki bihar daben hazkura hori

**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

SISTECO
erraminta makina
Juan Luis Berechinaga
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

Hozkailuak eta izozkailuak aire girotua.

Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

zapatutan eta domeketan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273

M^a
ESTHER
Tel: 76 81 67



Argazkixa: Okantzaneko Karmen

Beraneantiak gurdixan

1943ko iraillak 18ko argazkixa da ale honetarako Carmen-ek bidali doskuna. Han sasoian, beraneante asko etortzen ziran gure herrira udia pasatzera. Horretako beraneante batzuk dira, Okantzaneko idixek bultza egitten zebe gurdira argazkixa ataratzeko igo ziranak.

Argazkixa San Roke ostian, Larrabileko bidegurutzia baiño piskat lehenau etaratakua da. Janzkeran ikusi geinke, argazkirako edarto atonduta jua ziral danak. Argazkixa iraillekua izanda, azken egunak izango ziran beraniantendako gure herrixan.

Idi pare ederra ikusi geinke argazkixan. Lehenau biharrezkuak ziran idixak basarriko lanetan, Elgetatik ez da pasau aspaldixa idixek bultza egindako gurdirik. Nola aldatzen diren gauzak, kamarada.

Argazkiko lagunak: Idixen aurrrian, Jose Okantza, honen eskerretara larrabilgo kriaau izandako Bittor, Elorrixon pelukerixia eukitakua.

Burdixan aurreko aldiian Maritxu Ugarte eta Larreategi. Honen atzeko aldiian, Rosario galdos eta bere gizona Luis, Martintxoneko Julita bere gizon Albertokin eta euren seme Albertokin.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

Bulego berria

Probaleku 6 Tel.: 943170 912

ocaso aseguruak



Hainbat aseguru mota:

autoen seguroak
erresponsabilitate zibillekoak

Etxeko aseguruak
bizi aseguruak

Jubilazio aseguruak
Familia laguntzarako aseguruak

elkarteendako aseguruak
pymes aseguruak

Elgetan, bertatik bertara, pertsonalizatua.
Baita zure etxean edo Panaderokuan ere.

asegurutzen
diren lehenengo
zoek opari bana
jasoko dute

Arantxa M. Valdivieso
aseguru-agentea

Tel.: 943 17 09 12
Probaleku 6, behea
48260 Ermua (Bizkaia)

Movil: 655 70 39 57
Faxa: 943 17 91 27



Arantxak jai zoriontsuak opa dizkizue